Hiru ahotsetara kontatua dago istorio hau: narratzaile orojakilea, batetik; Emile bera, bestetik, eta aholkuak ematen dizkion hirugarren ahotsa, azkenik. Irakurleak erabakiko du hirugarren ahots hori nori dagokion. Edonor izan daiteke (irakurlea bera, gurasoak edota Emileren kontzientzia, adibidez), eta, hitz egiten duenean, letra etzanez agertzen da testua. Emileren burutazioak zalantzan jartzen ditu ahots horrek, eta beraren pentsamenduak zer ondorio dituen azalduko dio.

Istoria sinplea da benetan –minimalista, esango genuke–, eta ilustrazioek ere sinpletasun hori azpimarratzen dute. Istorio guztia etxeko egongelan gertatzen da, lehen planoan eta atzealderik gabe. Ipuinari ez zaio umorerik falta, ezta originaltasunik ere. Vicente Cuvellier egile frantsesak bilduma bat osatu du Emileren abenturekin, eta hau da euskaraz jaso dugun lehenengo alea.

González, Olalla

Barbantxo

Ilustratzailea: Marc Taeger

Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-032-4

Olalla González, ahozko tradizioan oinarrituta dagoen ipuin ezagun hau berreskuratu, eta

egokitzapen berri batekin datorkigu, haurren gustukoa den egitura errepikakorra eta lelo moduko kanta batekin.

Familia bateko semea garbantzua bat bezain txikia zen. Horregatik, Barbantxo izena jarri zioten. Ama beldur zen norbaitek bere semea ikusi ez eta zapalduko ote zuen; Barbantxo adore handiko umea zen, ordea, eta bideetan zehar kantari joango zela esaten zion amari, jendeak entzun behintzat egingo zuela. Eta hala abiatzen zen, zirt edo zart eta umore onez. Baina, egun batean, aza baten azpian lo geratu zen, eta idi batek irentsi zuen.

Kontakizun horrek baserriko bizitza eta ohituretara hurbiltzen gaitu. Barbantxo etxe-giro babesgarri batean bizi da, baina konfiantza ere eman nahi diote umeari, bizitzan egoera txarrak ere izaten baitira; Barbantxo, hortan, indartsua da, oso txikia izanda ere ez baitu mundua ezagutzeko beldurrik, eta, irribarrez eta aldarte onez, arazoei aurre egiteko prest ikusten du bere burua.

Marc Taeger-en naif estiloko ilustrazio koloretsuak ezin hobeto uztartzen dira testuarekin. Teknika originala erabili du; berak azaldu duen bezala, gailetakozko atzeko alde gris baten gainean marraztu, moztu, eta collagea egin du. Babes orriak ere horrela sortutako irudiez osatuta daude.

Txikien artean arrakasta izango duen herri-ipuin alaia, barregarria eta... zaratatsua.

Lacroix, Alexandre

Dragoi aita-semeak

Ilustratzailea: Ronan Badel

Itzultzailea: Jesús Otzerinjauregi

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2018 (Zuhaitz-etxeko istorioak; 2)

ISBN 978-84-9106-641-5

Alexandre Lacroix (1975) filosofo eta idazlea eta Ronan Badel (1972) ilustratzailea artista ezagunak dira Frantzian.

Lacroixen hitzetan, Strokkur izeneko dragoi txikiaren istorioak bere haurrentzat asmatutakoak dira, gauzez irakurtzeko, ohean goxo-goxo, argiak itzalita. Ilunpetan sortutako istorioak dira, beraz. Orain arte, sail horretako hiru istorio argitaratu dira frantsesez.

Liburu honetan, pertsonaia nagusia aitarekin bizi den dragoi txiki bat da. Dragoi familia bateko kide moduan eta tradizioari jarraitu ahal izateko, frogatu behar du benetako dragoia dela. Eta nola frogatu? Aitaren agindua betez eta herriko etxe batzuk errez!

Baina Strokkur-ek oztopo batzuk aurkitu ditu bere bidean, eta ez du lortu betetzea aitak bidalitako agindua. Gizakien ezagutzak errealitatearen beste ikuspuntu bat eman dio: bihotzak hartuko du suaren tokia, eta, erre orde, sormena eta adiskidetasuna plazaratuko dira protagonista dragoi bihurtzeko prozesuan.

Aita ez dago pozik bere kumearen portaerarekin, berarentzat gizakien laguna izatea akabera baita; eta, alderantziz, gizakien beldurra babesteko eta bizirauteko bide bakarra dira berarentzat. Baina, semeak ematen dionean haurrek egindako marrazkia, «aitaren aurpegia harrotasun-irribarre eder batek argitu zuen».

Ilustrazioak oso politak dira, detailez beteak, adierazgarriak, samurrak, eta bat doaz testu idatziarekin. Narrazioa, bere sinpletasunean, ederra da, umoretsua, samurra. Istorioa ondo kontatua dago, eta arreta handiz jarraitzen dira protagonistaren pauso eta sentimenduak. Bihotza ukitzen digu, dragoi aitari moduan.

Lionni, Leo

Arrarik arra

Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-043-0

Alegia honen protagonista har txiki berde bat da, txori gosetien gustukoa den horietakoa, baina burutsua eta argia ere bada, eta adimena erabiliko du hain zuzen inoren janaria ez izateko. Horrela, bere burua arriskuan ikusten duen bakoitzean, bere balioa jakinarazten die txoriei, «arrarik arra» gauzak neurtzeko trebetasuna daukala azalduz. Hori entzuterakoan, jakin-mina pizten zaie txoriei; txantxangorri gosetiari isatsa neurtuko dio, flamenkoari lepoa, eta istorioan zehar azaltzen diren beste hegaztiei moko edo hankak, harik eta urretxindorrarekin topo egiten duen arte. Hark kantua neurtzeko eskatzen dio, bere gosaria ez badu izan nahi. Nola neurtuko dio kantua, «arrarik arra» gauzak bakarrik neurtzen baditu? Ataka berri horren aurrean, hartxoak beste behin ere bere abileziaz baliatu beharko du, eta espero ez dugun bukaerara eramango gaitu.

Leo Lionni artistaren hainbat ezaugarri topatuko ditugu liburuaren irudi zoragarrietan; ipuinak ilustratzeko aitzindari izan zen collage teknika eta koloreak, orri zurian nabarmentzen direnak.

Berdeak eta marroiak, ñabardura askorekin, harraren bizilekua islatzen dute, eta harraren tamaina ñimiñoaz jabetzen gara; basoko bizitza eta arriskuak ulertarazten dizkigu, eta harraren konplize bihurtzen. Txorien tamaina eta ezaugarriekin ere jolasten da Lionni, eta, azkenean, konposizio eder eta orekatuak sortzen ditu, bi orrialdeetan zabalduta, non irakurlea har txikia topatzen saiatuko den.

Disfrutzeko eta gogoetarako Lionniren arte ederra.

Marino, Gemma

Ura gustuko ez zuen krokodiloa

Itzultzailea: Mónica Crespo

Bartzelona: Picarona, 2018

ISBN 978-84-9145-173-0

Gure protagonista krokodilo samur txikiak arazotxo bat du: ura ez zaio batere gustatzen. Benetan maite duena zuhaitzetara igotzea da. Horregatik ezin da jolastu bere senideekin, eurek eguna uretan pasatzen dute eta. Norekin jolastu ez duenez, bakarrik sentitzen da. Krokodilo txikiak erabaki bat hartzen du, eta flotagailua erosten du senideekin jolastu ahal izateko. Baina ideia ez da uste duen bezain ona, flotagailuaz ezin baita pilotan jolastu, ezta ur azpitik ibili ere. Gorroto du ura, hotza eta bustia dagoelako. Eta krokodilo hau benetan krokodilo bat ez bada?

Krokodiloa desberdina sentitzen da, eta besteek bezalakoa izan nahi du; bere nortasuna topatzen ari da. Baina onena gure bideari jarraitzea da, eta garen bezalakoak izatea da garrantzitsuena.

Irakurkera samurra eta dibertigarria dakarren albuma da hau, eta protagonista maitagarria bihurtzen da, samurtasun handia baitu. Aldi berean, umoretsua ere bada, eta, horretarako, ilustrazioak oso lagungarriak dira. Irudiak koloretsuak, sinpleak eta tamaina handikoak dira, eta, tarteka, binetak ere erabiltzen ditu.

Haur txikiek gustura entzungo duten istorio maitagarria kontatzen digu ipuin honek, eta nagusiagoak direnek momentu dibertigarria pasatuko dute irakurtzen, dudarik gabe.

Rijken, Jelleke

Agur aitona

Itzultzailea: Ihintza Elsenaar

Donostia: Tarttalo, 2018

ISBN 978-84-9843-774-4

Heriotzari buruzko liburu hunkigarria dugu Jelleke Rijken herbeheretar idazleak idatzitako duena. Haurrek ulertzeko moduan azaltzen du zer den heriotza: «... hiltzen garenean, ezin dugu hitz egin, ezin gara mugitu eta ezin dugu arnas hartu...», « ... eta noiz arte jarraitzen dugu hilik?...», «... hiltzen garenean ezin gara berriro bizitzara itzuli...». Bere lagun Elefantek eta Oilok Hartzi lagunduko diote gertatutakoa ulertzen eta onartzen, eta, nahiz eta aitona berriro ez ikusi, bere alboan egongo direla sentiaraziko diote. Azkenean, hiru adiskideen artean, agur eder bat eskainiko diote aitonari.

Jelleke Rijken-i gazte zela hil zitzaion aita, eta bizipen horiek liburu honetako inspirazio izan dira. Album honetan, modu ireki eta argian, aukera ederra eskaintzen da guraso eta haurren artean hain mingarria den gai honi buruz hitz egiteko.

Ilustrazioak Mack Van Gageldonk-enak dira. Pertsonaien forma sinpleek ederki asko laguntzen dute bakoitzak sentitzen duen emozioa identifikatzen: tristura, pena, adiskidetasuna... Gainera, naturako paisaiek lasaitasuna eta bakea helarazten diote irakurleari.

Azkenik, aipa dezakegu 2019ko *Juul* saria irabazi duela sentimenduz betetako album honek.

Rodari, Gianni

Zenbakiak asmatzen

Itzultzailea: Fernando Rey

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-012-6

Gianni Rodari maisu handiak 1962. urtean idatzitako *Telefonozko ipuinak* liburu ospetsuaren ipuin bat daukagu hemen. Berak erakutsi zigun bezala, istorio labur batek kontakizun zoragarri bat sor dezake, eta *Zenbakiak asmatzen* da horren adibidea. Ipuin honetan, Rodariren talentuaz, originaltasunaz eta sormenaz jabetzen gara. Rodarik ez dio fantasiari mugarik jartzen, eta oraingoan zenbakiez baliatuko da pertsonaien arteko elkarrizketa-joko xeble eta original bat sortzeko, batzuetan galdera arruntak eta sinesgarriak eginez, bestetan xebleak eta surrealistikak. Erantzunak, berriz, aiurriz eta sormenez beteak dira. Zenbakiak edo biderketa-taula berriak bihurritu eta sortzeaz aparte, Rodariren ikuspegi kritikoa ere azaltzen da. «Zer pisu du malko batek?» galderarekin, gauzen balioaz ohartarazi eta gogoetarako gonbita egiten digu.

Kontakizun honek esanahi eta autonomia propioa eduki arren, Alessandro Sannaren ilustrazioek keinu bat egiten diote jatorrizko liburuari. Irudimen handiko pintzelkada koloretsuz, forma berriak sortzen ditu zenbakiekin, eta horrek asko aberasten du Pamiela-Kalandrakak prestatutako edizio eder eta zaindu hau.

Liburu bikaina, gozatzeko eta imajinazioa pizteko.

Vincent, Gabrielle

Ernesto eta Zelestina, Eguberriak etxean

Itzultzailea: Eva Linazasoro

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-070-6

Haur literaturan badaude istorio ederrak eta samurrak gordetzen dituzten harribitxi batzuk.

Ernesto hartza eta Zelestina arratoia dira horietako hainbatetan protagonista. Gabrielle Vincent (1928-2000) ilustratzaile belgikarrak 1980ko hamarkadan sortu zituen bikote honen hainbat eta hainbat abentura.

Jakingo duzueenez, hartzen artean, arratoiak ez daude oso ondo ikusita. Hala ere, Ernesto musikari ibiltari bat da, burugogorra baina oso bihotz onekoa. Egun batean, Zelestina umezurtza hartuko du bere etxean, eta, diferentziak diferentzia, adiskidetasun harreman oparoa sortuko da bien artean.

Bikote honen ipuin guztietan, haien abenturak kontatzen dira.

Guztietan, maitasuna, adiskidetasuna, eskuzabaltasuna edo irudimenaren indarra gorai patzen dira. Liburu honetan, Gabonak iritsi dira, eta Gabonetako festa antolatzeke arazo ekonomikoak izango dituzte gure bi lagunek. Beti bezala, estutasunen ondorioz, irudimenaz baliatu beharko dute, etxean lagun guztientzat festarako behar dituzten apaingarri, jatekoak, opariak eta abar lortzeko.

Azkenean, eginahal guztiak eginda, festa zoragarri eta maitagarri bat antolatuko dute.

Haur batentzat korapilatsuak edo mingarriak izan daitezkeen gaiez (pobrezia) hitz egiteke modu erraza eta hunkigarria aurkitu dugu liburu hauetan.

Edozein haurri gerta dakizkiokeen pasadizo hauetan, beren burua islatuta ikus dezakete, eta, era berean, babestuta sentitu eta nahigabeen aringarri suertatu.

Hori guztia ilustrazio zoragarriaz jantzita. Akuarela eta pastel-koloreak, sentimenduak eta emozioak kontatzeko ezinbestekoak egiten zaizkigunak.

Ipuin klasiko hauek ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Apur bat zoriontsuago izango zarete.

6 urtetik aurrera

Arnal, Txabi

Kar Kardantxilo

Ilustratzailea: Julio Antonio Blasco

Sondika: Giltza, 2018 (Tren urdina)

ISBN 978-84-8378-485-3

ASKATASUNA sarri eta nonahi erabiltzen den hitza da. Nola ulertzen dugu askatasuna? Zer dago hain preziatua den kontzeptu horren muinean? Ume txikiei helaraz dakie askatasunaren kontzeptua ipuin baten bitartez?

Edozein herritan egon daitekeen auzune bateko gizaseme bakartia eta kardantxilo arrunta dira protagonistak ipuin eder honetan. Kardantxiloa kaiolan sartu orduko hasiko dira buruhaustea. Izan ere, kaiola batean sartuta, izan daiteke inor zoriontsu?

Izan daiteke inor aske? Gure kardantxiloa txori askea da, bere kabuz erabakiak hartzeko gai dena. Garbi du helburua. Ez dio beldurrik askatasuna lortzeko prozesu luze eta neketsuari. Badaki bere kaiola parean ikusten duenaz haratago begiratzen; mundu ezberdinak imajinatzen dituen horietakoa da. Ahotso altxatuko du, eta, askatasunaren bilatze horretan, ez da bakarrik egongo: kardantxilo eme bat izango du lagun. Hala, elkarlanaren aldarrikapena ere egiten da liburuan.

Umerez, ironiaz eta trebeziaz plazaratzen digu Arnalek askatasunaren gaia. Ipuin iradokitzaile honek hasiera-hasieratik sortzen du kuriositatea, eta bukaerara arte eusten dio interesari. Ez da erraza gaur egun halakorik lortzea!

Ilustrazio koloretsuak, xehetasunez beteak eta ipuinaren mezua ulertzeko ezinbestekoak. Idazleak eta ilustratzaileak ederki erabili dute «bi kirteneko zerra»,

norberaren bidearen bilatze horretan umeen sormena eta imajinazioa bultzatuz. Irakurleen irribarrea sortuz.

Har ezazue liburua, irakurri, eta ozen kantatu. Hasierako abesti itsusia eder bilakatu arte!

Arrula Ruiz, Garazi

Bidean

Ilustratzailea: Helena Azkarragaurizar Jauregi

Berriozar: Denonartean, 2018

ISBN 978-84-16791-82-8

Iratik gauza piloa daki. Ikara hitza ez da gauza horietako bat.

Baina andereñoak esan die hurrei: «Ikara marraztu behar duzue!». Konturatzen al da andereñoa zer eskatzen dien umei? Iratik galdetu nahi dio, baina «erlojua baino lasterrago ibili da» irakaslea.

Irati ez da beldurtu, eta bidean jarri da, ikara hitz ezezagunaren esanahiaren atzetik.

Hasteko, hitzaren soinuari erreparatu dio: ikara, ikara, ikara... Eta etorri zaizkio hainbat hitz ezagun: kikara, lurrikara, ikaragarri, hotzikara... Baina ikara zer ote da? Zer da ikara, aitona?, zer da ikara, amona?, Ingrid, Julia... ? Zer da ikara? Helduen erantzun filosofiko eta jakintsuetan oinarriturik, bere esperientziarekin loturak egiten joaten da, eta zehaztasunetara ekartzen ditu haien hausnarketak. Eta badoa ulertzen, badoa marrazten ikara, marrazten du ikara, gelako ume guztiek marraztu dute ikara.

Bidean doa Irati ikara marraztu arte, eta narrazioa bidean doa hitzen eta ilustrazioen eskutik, Iratiren eta beste haurren marrazkiak islatu arte. Izugarri ederra da bidaia, ederrak hitzak, ederrak ilustrazioak, sakonak helduen gogoetak eta xarmantak Iratiren interpretazioak eta asoziazioak. Horrelako hitz abstraktu batek zein errealitate dakarren hitzari eta arteari esker.

Gozatu egin dugu liburuarekin eta, zenbat eta gehiago irakurri eta begiratu, orduan eta gehiago dastatu dugu gizakiaren sormena, ausardia eta metaforarako ahalmena.

Autore bien lan bikainari eta haien arteko koordinazioari esker, oso liburu gomendagarria lortu dute.

Hernandez Chambers, Daniel

Bidaia luzea

Ilustratzailea: Federico Delicado

Itzultzailea: Luigi Anselmi

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka , 2018

ISBN 978-84-9172-058-4

Ipuin ilustratu honetan,aldi berean gertatzen diren bi bidaiaren istorioak tartekatuko dira, samurtasunez eta sentikortasunez beteriko era batean. Alde batetik, antzar amak eta bere txikiak hegoalderantz lur epelen bila hegaz egiten duten bidaia agertuko zaigu, eta, bestetik, gerran dagoen herri batetik ihesian iparralderantz doan familia bat.

Narrazio bietan, txikien beldurra eta egonezina nabaria da, leku ezaguna eta maitea utzi eta leku ezezagun batera joaten baitira. Baina helduek konfiantza eta itxaropena piztuko diete. Bi bidaiak era paralelo batean kontaktzen dira: beste batzuekin topatzea, janari eskasia, harrapariak eta mafiak... Azken erronka itsasoa zeharkatu beharra izango da. Errefuxiatuen gaia –egun hain agerian daukagun drama– tratatzeko era oso humanoa eta aldi berean gordina da. Hegaztien urteroko migrazioak samurtuko du kontakizuna.

Orrialde bikoitzetan egindako ilustrazioak oso errealistak dira, eta ondo adierazten dute protagonisten beldurra, tristura eta egonezina. Erabiltzen dituen kolore gehienak okreak dira, eta tonu apalekoak; horregatik, itsasoaren urdina erabiltzen duenean asko nabarituko da.

Gure kontzientzia astintzen duen istorioa dugu hau, galtzen ari garen gizatasuna berreskuratzen lagunduko diguna.

McKee, David

Elmer eta ostadarra

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Erein, 2018

ISBN 978-84-9109-290-2

Elmer elefantea oso ezaguna da oihanean. Eta haur txikien elefante gogokoena ere bada. Izan ere, oihanean, bat bera ere ez dago bera bezalakoa: gorputzean dituen kolore biziak egiten dute berezi.

Oraingo honetan, oihanean ekaitza baretu ondoren, animaliak ohartu dira ortzadarrak bere koloreak galdu dituela. Eta Elmerrek ortzadarrari lagundu behar diola pentsatu du. Jakina, Elmer ezagutzen duzuenok badakizue elefante hori on hutsa dela, eta erabakitzen du soinean dituen koloreak emango dizkiola ortzadarrari.

Baina zer gertatuko zaio Elmerri bere koloreak ortzadarrari ematen badizkio? Betiko galduko al ditu bereak diren koloreak? Utziko al dio berezia izateari?

Bost axola dio horrek Elmerri. Beste elefante guztiak bezalakoa izaten jarraituko du. Hobe hori, gainera, oihanak kolorerik gabeko ortzadarra edukitzea baino. Gainera, zoriona eta maitasuna legez, behin eta berriro emanagatik badira gauza batzuk inoiz galtzen ez direnak.

Elmerren istorioak aproposak dira familia eta lagun artean irakurtzeko. Denok ikasten dugu bera bezain bereziak garela.

50 urte baino gehiago pasatu dira jada David McKee ilustratzaileak Elmer elefante koloretsua sortu zuela. Idazle eta ilustratzaile ingeles hori Elmer elefanteari esker egin zen ezagun, eta hainbat eta hainbat abentura argitaratu zituen urteetan zehar.

Euskarara ekartzean, berarenganako miresmena berritu baino ez da egin. Eta denok irabazle gertatu gara. Makina bat istorio dibertigarriren protagonista honekin, errespetua, adiskidetasuna, aniztasuna eta halako balioak ikasiko ditugu. Oso modu naturalean, gainera.

Pintadera, Fran

Kandido eta besteak

Ilustratzailea: Christian Inaraja

Itzultzailea: Uxue Rey Gorraiz

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-068-3

Noiz edo noiz desberdin sentitu zara? Lekuz kanpo? Arraro samar?

Kandidok, ipuin honetako protagonistak, halako sentimenduak ditu. Bistan da ez dela besteak bezalakoa. Batzuetan arraro sentitzen da, barregarri, estrainio, xeble, berezi. Uste du inork ez duela ulertzen. Beste batzuetan, bera da ezer ulertzen ez duena: inguruko ohiturak, joerak, gizarte globalizatu honen modak eta kontraesanak. Lekuz

kanpo sentitzen denean, oharkabeen ibili nahi izaten du. Kandidok ez du maite jendea berari begira izatea, baina besteentzat ikusezina izatea ere ez. Sarritan, mundua leku zaila dela uste du, eta kosta egiten zaio bere tokia aurkitzea.

Liburu honek **Album Irudidunentzako 2018ko Nazioarteko XI. Compostela saria** jaso zuen. Desberdintasunari eta aniztasunari emandako tratamendu egokia saritu nahi izan zuen epaimahaiak.

Estilo garbia eta zuzena erabiliz, Fran Pintanedak sentimendu unibertsalak aurkezten dizkigu: lotsa, beldurrak, sentimendu kontrajarriak, ingurukoekin bat etortzeko nahia. Guztiok sentiitu izan gara noizbait desberdin, eta oso erraza da Kandidorekin identifikatzea. Dena den, gaia aurkezteko eran datza liburu honen berezitasuna: norberak besteen gainean duen begirada eta besteek norberaren gainean dutena egoki agertzen baitira istorio honetan.

Christian Inarajaren proposamen estetikoa, berriz, zoragarria da. Kubismoaren eta neoplastizismoaren arteko estilo koloretsua, grafikoa eta guztiz esanguratsua erabiltzen du. Kandido ulertzeko ezinbestekoak diren ilustrazioek sekulako indarra dute. Istorioa argitu, osatu eta aberastu egiten dute; baita jolasteko aukera eman ere.

Plazera da albumaren orriak pasatzea. Behin eta berriro irakurtzeko istorio zirkular bat, ipuinaren amaiera beste kontakizun baten hasiera bihurtzen baita.

Munduan dauden «kandido» guztiak hobeto ulertzeko balio digun irakurketa. Munduan dagoen aniztasuna ikusi nahi duenarentzat.

Irakurleen begirada zabal baten alde!

Ez al da hori literatura onaren ezaugarria?

Ungerer, Tomi

Lagun berriak

Itzultzailea: Ainhoa Irazustabarrena

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-069-0

Duela gutxi utzi gaitu Tomi Ungerer idazle handiak. 87 urte zituen alsaziarrak, eta obra emankorra, zabala eta zoragarria utzi digu, haur eta helduen gozamenerako. Idazlea ez ezik, ilustratzaile nabarmena ere izan zen, eta horren lekuko dira haren hainbat eta hainbat liburu ahaztezin. 1998an, Hans Christian Andersen saria eman zioten, haur literaturan egindako lanagatik. Sortzaile paregabea izan da Ungerer, probokatzailea eta askotan polemikoa.

Oraingoan, Ainhoa Irazustabarrenak *Lagun berriak* liburua euskaratu du, Pamiela-Kalandrakaren eskutik. Adiskidetasuna da gai nagusia liburu honetan; bakarrik dauden bi haur etorkinen adiskidetasuna, hain zuzen ere. Rafi Sahara hegoaldeko mutiko bat da, eta Ki, berriz, Asia urrunetik etorri den neskatua. Elkarren ondoan bizi dira, eta lagun handiak bilakatuko dira zaletasun eta gabezia berak dituztela konturatzen direnean.

Haur liburuetan ohikoak ez diren gaiak ukitzen dira: sormena, arte garaikidearen itxurakeria, arrazismoa... Ungererrekin haurraren inteligentzian sinesten du; haurraren iritzi kritikoa bilatzen du errealitate gordina ezkutatu gabe, eta gozotasuna eta umorea ere presente daude.

Ezaugarri horiek guztiak nabariak dira ilustrazioetan ere. Probokatzailleak eta ausartak dira, eta xehetasunez beterik daude. Behin eta berriz irakurtzeko eta aztertzeko liburu paregabea.

8 urtetik aurrera

Arrieta Malaxetxeberria, Yolanda eta Alonso Pikabea, Aitziber

Mari Xor

Berriozar: Denonartean, 2018

ISBN 978-84-16791-80-4

«Aspaldiko etxe aberats batean, hiru ahizpa eztabaidan ari ziren:

—Aitarik gabe bizi daiteke mundu honetan, baina, gatzik gabe, ez —esan zuen gazteenak».

Gertaera horrek aitaren eta ahizpen harridura eta haserrea ekarriko du. Ez dute begi onez ikusten neska gazteak askatasunez egiten duen gatzaren interpretazioa, eta aitak alaba etxetik botako du.

Ez dugu ulertuko aitaren zigorraren krudeltasuna, baina sumatzen dugu Mariak ekingo dion bide gogorak amaiera zoriontsua izango duela, eta, horregatik, berau hasteko nahia izango dugu. Aitziber Alonsok ezin hobeto komunikatzen du egoera hori bi orrialdeko irudiekin, momentuko fantasia estimulatuz.

Gauean basoan bakarrik dagoela, Mariari andre zahar bat —hots, maitagarria— azaltzen zaio, eta neskak kontatuko dionarekin itxaropentsu agertuko da: «Ikasiko duzu aita gabe bizitzen». Eta, hala, beraren bidelaguna izango da hasiko duen bide berrian.

Gogoz kontra, baina aurrera jarraitzeko, neskame lanetan hasi eta sekula egin gabeko lanak egingo ditu, hala nola antzarak zaindu edo galtzerdiak egin, baina, hala ere, ez du sekula bere nortasuna eta izaera galduko, eta lehengo ohiturei eutsiko die; esate baterako, bere itxura zaintzea edo maiorazkoaren arriben modu txarrei ez erantzutea. Hain zuzen, hortik datorkio jarriko dioten ezizena: «Mari Xor, zorri eta gor».

Hemen kontatuko ez dugun Mariaren eraldaketa bortitzak eta bukaera klasikoak ume zein nagusiak maiteminduko ditu, eta Mari Errauskini eta beste ipuin batzuei egiten dien keinuak liluratuko. Dena xehetasunak erabat zaindutako edizio batean.

Yolanda Arrietak eta Aitziber Alonsok Euskal Herrian kokatu dute etengabeko transformazioa bizi duen herri-ipuin hau. Era berean, Jose Migel Barandiaranek Ataungo eta Oñatiko bertsiok jaso zituen *Obras completas II* liburuan. Badira munduan zehar beste bertsiok interesgarri batzuk ere, batzuk esplizituagoak, non kontatzen diguten nola hiltzen dituen protagonistak berak zaindutako antzarak, eta beste batzuk, iradokitzaileagoak, esku artean dugun hau bezalakoa.

Amaieran, galderak sortuko zaizkigu, bai bizitzako momentu bakoitzean norberak behar duen gatz horren inguruan, bai azaltzen den errealitate sozialaren inguruan. Lan hau ezin hobeto sartzeko da gure oso gomendagarrien zerrendan. Ezinbestekoa.

Dahl, Roald

Jira, Peli eta hirurok

Ilustratzailea: Quentin Blake

Itzultzailea: Joseba Santxo Uriarte

Etxebarri : Begiko, 2018 (Morea)

ISBN 978-84-16839-08-7

«Nire etxetik hurbil badago egurrezko eraikin zahar bezain berezi bat, zutik eta bakarrik errepidearen alboan». Honela hasten da Roald Dahl-en klasiko moderno hau. Lehen pertsonan kontatzen dizkigu Billyk, liburu honetako protagonistak, hiru animalia berezirekin partekatuko dituen abentura miragarri zein zirraragarriak. Eta hau da, gure iritziz, egilea hain ezagun egin duen ezaugarri bereizgarrietariko bat: irudimenaren eta errealitatearen ertzetik mugitzeko duen gaitasun aparta, betiere umorez eta abentura ikaragarri jantzita. Kasu honetan, pelikano, jirafa eta tximino bat izango ditu bidaide, eta, haien abilezia apartez baliaturik, lapurreta kasu bat argitzea lortuko dute. Ezbairik gabe, irudimena lantzeko liburu aparta dugu honako hau. Ustez hain ezberdinak izan daitezkeen animaliek talde berezia osatuko dute, bakoitzak bere botere apartak dituela: jirafak lepoa neurri gabe luza dezake, pelikanoaren ahoan ur litro dezente gorde daitezke, eta tximinoak abilezia paregabea azalduko du leihoak garbitzeko. Elementu horietaz baliaturik, egile ingelesak irakurlearen arreta bereganatzea lortuko du, umorea ardatz nagusizat hartuz eta, horretarako, hain bereizgarriak diren gehiegikeriak eta hiperboleak maisuki landuz. Ezin alde batera utzi Roald Dahlen lanetan ohikoa bilakatu den ilustratzailearen lana; Quentin Blakerena, alegia. Tintarekin eginiko marrazkiak zirriborrotik ugari edaten du, eta nabarmen gertu dago umeen marrazkietatik; freskotasun berezia eskaintzen dute, betiere pertsonaien adierazkortasunari garrantzia emanez. Aipatzekoa da, bestalde, itzultzailearen lan aparta, naturaltasuna lortu baitu, batik bat hiztegiaren alorrean; adibidez, gozokiei dagokien atalean, zehatz-mehatz itzuli baitu. Aukera paregabea egile ingelesaren klasiko handi hau euskaraz irakurtzeko edizio berri honetan.

Igerabide, Juan Kruz

Euskal herrietako ipuin gaiztoak: maitagarri, amaizun, sorgin eta herensuge

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Berriozar: Denonartean, 2018

ISBN 978-84-16791-86-6

Ahozko tradizioko ipuinak jasotzen ditu Juan Kruz Igerabidek bilduma honetan. Bost ipuin Elena Odriozolak irudi zabalgarri ederrekin jantzi dituenak, eta ez bakarrik txikiek, baizik eta baita helduek ere disfrutatu ahal izango dituztenak. Antzeko izenburuarekin eta antzeko jatorriarekin argitaratzen duen bigarren ipuin bilduma da. Aurrekoa, *Euskal herrietako ipuinak: baratxuri, gatz, txori eta titiriti* izenburua duen ipuin antologia ere, formatu eta ilustratzaile berarekin osatu zuen egileak.

Edizio honetan bildu dituen bost narrazio laburrek izenburu hauek dituzte: «Ama-umeak», «Amaizun gaiztoa», «Sorgin gaiztoa», «Beltxane» eta «Amak hil nau, aitak jan nau». Eta, izenburuetan suma daitekeenez, beldurgarriak eta izaki gaiztoz jositako kontakizunak dira. Eskerrak, hala ere, amaiera zorionsua duten. Bilduma honetako ipuinak egilearen hitzaurre batekin lagunduta datoz.

Aurreko alean ez bezala, ez du ipuinen antzinakotasunari edo egokitzapen eta moldaerari buruz iruzkinik egiten, ipuinen balio moralaz baizik. *Gaiztoa* hitza deskribatzen saiatzen da, eta halako ipuinak haurren psikea osatzen joateko beharrezkoak direla adierazten du.

Tipografia handiarekin idatziak, samurrak eta laburrak dira, eta gehienak olerki bat txertatuta datoz, tartean, hasieran edo bukaeran.

Lehen esan bezala, Elena Odriozolaren ilustrazioak ditu lagun edizio honek ere. Ilustrazioak ilunak dira: urdin iluna, moreak eta beltza dira nagusi.

Elenaren trazua nabari zaie, batez ere pertsonaien irudiei. Oso irudi gordinak dira.

Irudia eszena bezala planteatuta dago, zabaltzen diren orri batzuen bitartez.

Gordintasuna sumatzen dugu gorputz atalen, aizkoren eta odolaren bidez; guztiak gorri biziarekin ukituta daude, gainera.

Betiko ipuinak, beraz, kontatzeko zein irakurtzen hasten direnentzako egokiak.

Igerabide, Juan Kruz

Grigor eta erlea

Ilustratzailea: Concetta Probanza

Irun: Alberdania, 2018 (Kalamatxin; 9)

ISBN 978-84-9843-778-2

Juan Kruz Igerabideren lau liburu batean bilduta osatu da honako album hau.

Hain zuzen, 1990eko hamarkadan argitaratu ziren 4 liburuz osatua da: «Egunez parke batean», «Gaez zoo batean», «Denboraldi bat ospitalean» eta «Oporraldi bat baserrian». Ez da, beraz, obra berria.

4 ipuinak liburu batean, 4 kapitulu balira bezala, argialetxe berean eta izen bera duen bilduman, lan edizio berri batean.

Aldatzen den bakarra ilustratzailea da. Aurreko 4 liburuetan, egilea Antton Olariaga ilustratzaileak lagundu zuen, zuri-beltzean; hemen, ordea, Concetta Probanzaren marrazkiak daude, eta koloretan.

Kapitulu edo abentura guztietan, Grigor 6 urteko haurra da protagonista.

Mutil xaloa eta prestua, aldiro parke batean jolasten dabilena. Halako batean, erle bat ezagutu, eta lagunak egingo dira. Erlearekin harreman estua izango du, eta kapitulu guztietan lagun bereizezina bihurtuko da.

Makina bat pasadizo biziko dituzte elkarrekin; hainbat eta hainbat animaliarekin egingo dute topo, eta guztiarekin izango dute harremana, eta istoriotxo bat kontatuko digute.

Horrela hasiko da lehenengo kapitulua: «Egunez parke batean». Gero, Grigorrek izango duen istripu baten ondorioz, amets mundu batean sartuko da, eta «Gaez zoo batean» biziko ditu abenturak. Istripua dela eta, gainera, «Denboraldi bat ospitalean» egon beharko du. Han, lagun bat ezagutuko du, eta, lagun horren eskutik, «Oporraldi bat baserrian» pasatuko du. Grigor, 4 kapitulu horietan zehar, heltzen eta gauza berriak ikasten joango da.

Argialetxeak asmatu du berriro argitaratzen Juan Kruz Igerabideren lan ezagun horiek. Liburu batean jarrita, jarraian irakurtzeko aukera emateaz gain, edizioari ere itxura modernoago bat eman diote. Akaso irudiak infatilizatuagoak daude, ilustrazioak guztiz ezberdinak baitira. Baina horrek ez dio kalte egiten. Alderantziz. Protagonistaren izaera xaloarekin ondo konektatzen dute, eta samurtasuna eransten diote kontakizunari.

10 urtetik aurrera

Kinney, Jeff

Eskola zaharra

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2018 (Gizajo baten egunkaria; 10)

ISBN978-84-9868-414-8

Zaila da ezer berririk gaineratzea jada hain arrakastatsua bilakatu den gure antiheroi kuttunaren inguruan. Baina hona hemen zertzelada txiki batzuk. Alde batetik, aipagarria da Gregen istorioek ez dutela gaurkotasunik galtzen, eta hori da gako garrantzitsuenetako bat, gure protagonista gaztetxoaren abenturek ederki lortzen baitute irakurlearen grina eta interesekin konektatzea, eta berriki euskaratu den azken liburu hau dugu horren lekuko zuzena. Kasu honetan, teknologia berriek eta belaunaldien arteko talkak dakartzaten ondorioen inguruko hausnarketa aurkezten digu egile estatubatuarrak, betiere ohikoak dituen ezaugarriak mantenduz, hala nola umorea eta eguneroko une arruntetan gertatzen diren pasadizo xeble eta bihurriak, zuri-beltzezko ilustrazio eta zirriborroz jantziak. Honenbestez, oraindik soka luzea aurreikusten diegu Gregen istorioei, egileak gaurkotasuna duten gaiei eusteko abilezia aparta erakutsi baitu. Bestalde, aipatzekoa da Greg pertsonaiarengan ez dagoela denboraren aldetik inongo garapenik. Horrekin lotuta, Harry Potterren abenturetan, pertsonaiak denboran zehar zahartzen doaz, eta, era berean, badago trantsizio bat haurtzarotik helduarora, eta, azken finean, amaiera bat. Gure antiheroi kuttuna, ordea, bere horretan mantentzen da, bere betiko burutazio eta xeblekeriekin, eta, formulak arrakasta duen bitartean, irakurleok gozatzen jarraituko dugu, betiere irribarrea ezpainetan.

12 urtetik aurrera

Castro, Francisco

Sinbad deitzen zidaten

Ilustratzailea: Manel Craneo

Itzultzailea: Jorge Gimenez Bech

Irun: Alberdania, 2018 (Osinberde; 15)

ISBN 978-84-9868-421-6

10 urteko mutikoa da Paulo, eta gurasoekin eta aitonarekin bizi da, kostaldeko herri txiki batean. Aitarekin hitz egitea zaila da askotan, beti baitago mugikorrarekin edota laneko ardurekin lanpetuta. Aitonarekin duen harremana ezberdina da guztiz. Paulo beharrean Sinbad deitzen dio, eta bestelako munduak imajinatzen dituzte bien artean, eta abenturaz beteriko momentu magikoak partekatu. Errealitatea eta fikzioa nahasten hasten direnean konturatuko dira aitona gaixo dagoela eta oroimena galtzen hasi dela poliki-poliki.

Abentura kutsua duen nobela errealista da honako hau. Paulo aitonaaren gaixotasunaren aurka borrokatuko da, maitasunez eta konplizitate handiarekin. Aitona mundutik urruntzen doan heinean, Paulok aitonaengandik geroz eta hurbilago egoteko bidea aurkituko du.

Familiak gordeak zituen gertaerak azaleratzen joango dira istorioan zehar. Ondo garatutako narrazioa da; erritmoa dauka, eta baita intriga ere. Istorio honetan murgiltzen denak bukaerara arte mantenduko du arreta.

Hernandez Chambers, Daniel

Enolaren sekretua

Ilustratzailea: David de las Heras

Itzultzailea: Aintzane Atela

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2018 (Paper txoriak; 21)

ISBN 978-84-9106-603-3

Gazteentzako nobela honek XXVII. Ala Delta saria irabazi zuen 2016. urtean. Ingalaterrako kostako herri txiki batean kokatzen da intrigazko istorio hau, eta Bigarren Mundu Gerrara eramaten gaitu. Gerra hartan, uso mezulariak oso garrantzitsuak izan ziren, kontaktetan ikusiko dugun bezala.

Protagonista «Galtzerdi» goitizena duen gazte bat da, bere gaztetasunari lotutako ohiko arazoak dituena: lehenengoko amodioa, arazoak familiarekin, eztabaidak institutuko lagunekin... Bizilagun batek, Enolak, bere tximinia garbitzeko eskatzen dio Galtzerdiri, eta, horretan ari dela, izugarritzko ezustekoa hartzen du mutikoak: uso baten eskeletoa aurkitzen du, eta, haren hankari lotuta, kodean idatzitako mezu bat. Hortik aurrera, Galtzerdik ahalegin handia egingo du enigmaren korapiloa askatzeko eta ia mende erdia ezkutaturik daraman istorio bat argitara ateratzeko.

Ondo loturiko eta bukaeraraino tentsioa mantentzen duen istorio bat kontatzen da. Abentura, umorea eta amodioa ere islatuko dira era xume eta hurbil batean gazteei zuzendutako narrazio honetan.

David de las Heras ilustratzaileak CCEI saria jaso zuen liburu honetarako egindako marrazki iradokigarriengatik.

Gazteek gustura irakurriko duten istorio hunkigarri eta intrigaz beterikoa.

Olasagasti Aiestaran, Ramon

Sasiolako erroteria

Ilustratzailea: Xabier Sagasta

Donostia: Erein, 2018 (Auskalo bumeran; 55)

ISBN 978-84-9109-293-3

Mamuen istorioek eta kondaira zaharrek mamitzen dituzte Ramon Olasagastiren eleberri motz eta oparo honetako pasarteak. Dena dela, misterio ukituko eleberri batek dituen ohiko ezaugarrietatik harago, baditu lan bikain honek elementu aipagarri askotarikoak. Eta, lehenik eta behin, hizkuntzaren erabilera bikaina aipatuko nuke. Alde batetik, hitanoaren erabilera jatorra, eta, bestetik, esamoldeen erabilera zuzena:

«Ez zegoen, ordea, asko fidatzerik lepatente haiekin. Bareak ekarri ohi du ekaitza, esaten zidan sarri aitona, eguraldi ederrarekin egurra mozten izerdi patsetan aritzen ginetan.

—Ez hadi fida, Ander: egunsentiko ederra, gauerako ekaitz». (27 or.)

Egileari galzorian dagoen landa eremuko hizkera aberatsaren aldeko aldarria sumatzen zaio. Baina jatortasun horrek ez du eragozten gaur egungo gizartean arruntak diren gailu eta bestelakoen inguruko erreferentziak ere sartzea, hala nola Whatsapp bidezko mezuak. Ildo horretatik, egileak maisuki lotzen ditu garai bateko misterio eta kontu zaharrak eta gaur egungo gizarte modernoko gertakariak, eta bullyinga izango da ardatz nagusia. Honela, bada, eleberria bi mailatan gorpuzten da: iraganeko kontu ilun eta zaharren inguruan, alde batetik, eta gertakari horiek gaur egunean duten eraginean, bestetik. Tentsio narratiboa ederki mantenduko du egileak eleberri motz honetan, hori baita haren beste ezaugarrietako bat: irakurterraza eta oparoa izateaz gain, orrialdeetara itsatsita mantentzeko gaitasuna dauka, eta hori, egia esan, liburu gutxirekin gertatzen da. Gonbita egina dago jada. Ez zaizue damutuko, ordea.

Zerrenda berezia

Añorga, Pello

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Zupankapaloak

Berriozar: Denonartean, 2018

ISBN 978-84-1679-84-2

Zupankapaloak deritzonaren lehen bertsioa 1999an argitaratu zuten Pello Añorgak eta Jokin Mitxelenak, elkarlanean, autoekoizpen batean. Poesia liburu bitxia izan zen hura, formalismo guztiak hautsita argitaratua, Edward Lear margolari eta umorista ingelesaren unibertsoetik ez urrun.

Urte asko pasatu da geroztik, ia 20, eta, ikusita liburuak gaur egun ere eduki zezakeela erakarmenik, berriro ere argitaratzea erabaki dute Añorga-Mitxelena tandemak, orduko leloak zein marrazki zuri-beltz berak mantenduz, lelo berri dezente gehituz, marrazki berri batzuekin batera.

Horretarako, Denonartean argitaletxearen ahalegina eta ausardia ezinbestekoa izan da. Izan ere, horrelako liburu bat gaur egun argitaratzea –hain txukuna, gainera– ez da erraza. Kontrazalean ageri diren hitzak irakurri besterik ez dago: «Zer da *Zupankapaloak* liburua? Bestiarioa edo disparatariora? Leloen feria edo jitajanforen furia? Astoaren arrantza edo ahuntzaren gau erdiko eztula? Basakirtenkeriaren mintza edo bufonkeria distira? Kale gorrietako blusa edo asfalto beltzeko iragarkien autobusa?».

Oroz gainera, hitzak dira jaun eta jabe, hitzak andere, hitzak protagonista ahalguztidun. Hitzak lehertu egiten baitira lerroen besoetan, eta oihartzun desberdinak sorrarazten dituzte, errimen kolorea lagun: orain satira bilatuz, orain disparte, kritika soziala, fantasia edo *nonsensea*. Hitzek bolbora dute, eta, elkarren artean ondo konbinatuta, su berria pizten dute zeru grisaren hortzean.

Mitxelenaren marrazkiak ere ezinbesteko konplizeak dira horretarako, izugarri ederrak baitira; beti umorea bilatzen dute hitzekin batera, binomio fantastiko berriak iradokiz.

Hitzak merkantzia hutsak diren aro honetan, plazer hutsa gerta daiteke liburua, hitzen festa soila bilatzen delako, ideologia eta absolutismo guztien gainera. Ariketa poetiko guztiz gomendagarria: haur sentitzen diren helduentzat edo nagusi sentitzen diren haurrentzat.

Prévert, Jacques

Txori baten portreta egiteko

Ilustratzailea: Mordicai Gerstein

Itzultzailea: Jose Angel Irigarai

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2018

ISBN 978-84-9172-031-7

I. Mundu Gerraren ostean André Bretonen jarraitzailea eta surrealismoaren taldeko partaidea izan zen arren Parisen, libreegia zen Prévert talde itxi bateko partaidea izateko. Hainbat kritikarik diote Préverten askatasunak, independentziak eta xumetasunak eragina izan dutela beraren ospe diskretuan. Haren obra ez da izan oso ezaguna gure artean, nahiz eta Frantzian poeta handitzat hartua izan. Adibidez, abeslari ospetsuek

abestu izan dituzte haren hainbat poema (Piaf, Gréco, Montant, Mouloudji), eta fenomeno horrek oso ezagun egin zuen Prévert. Horretaz gainera, hainbat eskolatan lantzen dira artistaren poemak eta ipuinak, eta Frantziako eskola eta institutu askok daramate haren izena.

Orain, aukera dugu euskaraz ere dastatzeko, Jose Angel Irigarairen itzulpenari esker, 1943. urtean idatzitako «Pour faire le portrait d'un oiseau» poema zoragarria. *Paroles* liburuan editatu zen, 1949an (Gallimard, Paris, 1949), eta 1953an ilustratu zen aurrenekoz, Elsa Henriquezen 23 irudiekin. Aldiz, irakurri dugun edizioaren ilustrazioak Mordicai Gersteinenak dira (1935).

Liburuan, sarrera moduan eta azalaren aurretik, lau ilustrazio ikus ditzakegu, liburuaren azkeneko hiru ilustrazioekin erlazionatuak. Istorioa zirkularra da, hasiera eta amaiera guztiz lotuta baitaude, eta horrek zentzu guztia ematen dio poemari: artea eta edertasuna gizakia askatzeko dira, eta, artista sortzailea bada, ez da artearen eta naturaren jabea.

Irakurleak ere denbora eta sosegua behar ditu, hanka puntetan hurbiltzeko eta poeman murgiltzeko. Behin eta berriz, pazientziaz, belarria irekiz eta liburua hainbat egunetan, hainbat gauetan konpainia moduan hartuz. Ez dago beste modurik poema dastatzeko: imajinarioaren eta errealitatearen arteko jolasa, denboraren eta pazientziaren eskaerak, artea, edertasuna, askatasuna eta gizakiaren maitatzeko ahalmena.

Préverten pentsamenduari jarraituz («Plus tard ce sera trop tard. Notre vie c'est maintenant»), disfruta dezagun orain, konpartitu dezagun hurrekin poema eder hau. Gure bizitzak eskertuko du oparia!

Ilustrazioak ederrak dira, eta Pamiela-Kalandrakak eskaintzen digun edizioa zaindua eta bikaina da.